



INTERPRETAZIO ZENTROAK, GIDAK ETA BIDAI AGENTZIEN MAHAIA / MESA DE CENTROS DE INTERPRETACION, GUÍAS Y AGENCIAS DE VIAJES

2021eko martxoaren 25a

GAI-ZERREDA:

1. Ongietorria.
2. Lantaldean parte hartzea, helburu hauekin:
 - a) Gaua igarotzeko zerbitzuak erakartzeko kanpainaren diseinua, bi lerrotan: enpresen artean (Getxo eta inguruak) eta banakakoetan.
 - b) Turismo-sektoreak eskaintzen dituen zerbitzuak sustatzeko estrategiari ekitea - MICE Bilbo Handiko enpresetara.
 - c) Turismo-sektorearekin batera taldeak erakartzeko dinamizazio-kanpaina (hartzaileak, gidak, zubia).
3. Turismo-enpresentzako laguntzak 2021: tokikoak (COVID, Dinamizazioa), BFA.
4. Oroigarria: Euskadi Turismo Bonua (atxikitze azken eguna).
5. Getxo Bono 2021: zenbatekoen aldaketak eta kronograma.
6. Turismoa sustatzeko kanpaina - Tokian tokiko kontsumoa sentsibilizatzeko eta sustatzeko kanpaina.
7. Turismoko kode-etikoa// BPP Aurreratuak SICTED, Covid bidez kutsatzeko arriskua murrizteko.
8. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.
9. Hurrengo urratsak.

PARTE-HARTZAILEAK: (63%)

DEITUTAKOAK		PARTAIDEAK	EZ-EGOTEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Smartin Bilbao	Saioa Martin	X		
Wilextours	Pablo Perez		X	
Go Basquing	Iñigo García Valenzuela	X		
Geotxiki	Aintzane Goldffard	X		



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Iparraldeko Ordezkarria Tcas.	Josu Arbeytua	X		
Sektoreko Ordezkarria + El Transbordador de Vizcaya, SL	Marta Uriarte (En sustitución de Ainhoa Sarriegi)	X		
Getxo Tours	Unai Celaá			X
MICE Design	Virginia Pérez	X		
Cristina Laiseca Ordezkarria	Cristina Laiseca		X	
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Mirene Zabalgoeazkoa		X	
	Sonia Urdiain	X		

EDUKIAK:

1. Ongietorria eta bertaratuen aurkezpena.

2. Lan-taldea:

Bertaratuak animatu nahi ditugu lantalde bat sortzera. Lantalde horrek motor gisa jardungo luke, honako 3 ekimen hauek diseinatu eta garatzeko interesa duten beste sektore batzuekin batera:

- ✓ Gaua igarotzeko zerbitzuak erakartzeko kanpainaren diseinua, bi lerrotan: enpresen artean (Getxo eta inguruak) eta banakakoetan.
- ✓ Turismo-sektoreak eskaintzen dituen zerbitzuak sustatzeko estrategiari ekitea - MICE Bilbo Handiko enpresetara.
- ✓ Turismo-sektorearekin batera taldeak erakartzeko dinamizazio-kanpaina (hartzaileak, gidak, zubia).

Teknikoki, sektore honek kanpaina osoan parte hartzeko duen funtsezkotasunaren berri ematen zaio mahaiari, baina, bereziki, taldeak erakartzeko eta MICE zerbitzuak sustatzeko ildoei dagokienez. Gogorarazten da hiru ildo horiek mahai sektorialekin proposatu zituztela aurreko saioetan, Enpresen Aholku Foroak lehenetsi zituztela eta, azkenean, 86.000 €-ko aurrekontua zutela gauzatze-fasera eramateko.

Asmoa da interesdunek elkarrekin lan egitea, udalaren laguntza teknikoarekin, eta beraiek izatea kanpainaren sortzaileak eta proiektuaren enpresa-sarea bera; hau da, hornitzaileak, eduki-sortzaileak edo merkataritzakoak, besteak beste, parte-hartzaileak berak izatea, eta, horretarako, bakoitzaren profila/espezialitatea hartuko da kontuan. Proiektu hau egungo krisia gainditzeko eta eskaintza indartsu eta erakargarri bat sortzeko bultzada izatea nahi dugu. Aste Santuaren ondoren, taldekako lehen saioak egingo dira.

Bertaratuek eskatu dituzte orain arte landutako estatistiketan lortutako emaitzen xehetasunak, informazio osagarri eta erabilgarri gisa, eta talde turistikoekin lotuta, bisitarien profila marrazteko eta estrategia eraginkorragoak sortzeko.



3. Turismo-enpresentzako laguntzak 2021:

3.1. Getxoko enpresei Covid-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioak gainditzeko laguntzeko ezohiko laguntzak.

Azaletik azaldu dira ekonomikoki lagun daitezkeen egoerak, baita enpresa onuradunen tipologia ere – Horien artean daude Gidaliburuen eta Etxebizitzarako Laguntzen sektorea –. (Xehetasun gehiago aurkezpenean).

Idazketa-fasean dagoela jakinarazi zaie, eta, beraz, planteatutako balizko egoera murriztaileei buruzko ñabardurak proposa daitezkeela, sektore batzuen errealitatera hobeto egokitzeko. Ildo horretan, planteatu dute ez dela nahikoa bidaia-gida eta -agentzientzako Getxoko perimetroa ixtea; azpisektore hori ezin izango da lanean hasi nazioartean mugikortasuna berreskuratzen ez den bitartean.

Deialdi hori online egingo da, maiatzean, eta, printzipioz, ez da justifikaziorik egin beharko.

3.2 Getxoko 2021 udalerrriaren dinamizazio ekonomikorako laguntzak.

2021ean dinamizatzeko laguntza-lerroak erakusten dira. (Ikus xehetasunak aurkezpenean). Interpretazio-zentroen, giden eta bidaia-agentzien sektorea 3. eta 4. lerroen onuradun izan daiteke.

3. lerro berria, banakako eskaeraren bidez egin beharko dena, udal-enpresek abiaraztu nahi dituzten negozio-lerro, produktu edota merkaturatze berritzaileak dinamizatzeko eta sustatzeko izango da; berrikuntzat hartuko dira merkaturatze-bide edo negozio-lerro eraldatzaile berri bezala balio duten egokitzapen teknologikoak.

4. lerroari dagokionez, planak, jarduerak edo turismo-esperientzien pakete erregularrak (gutxienez 4 urtean) abiaraztera bideratuta dago; nortasun juridikorik gabeko enpresa eta taldeentzat. Nolanahi ere, lerro honek esan nahi du eskainitako jarduera horien datak aurrez finkatu behar izango direla eta bermatu behar dela jarduera horiek ospatuko direla. Horrez gain, eta adibide gisa, apirilera eta maiatzerako esperientzien egungo planen katalogoa banatzen/erakusten da, formatu fisikoan.

Hala ere, deialdiaren garapenaren berri emango zaio sektoreari (Aste Santuaren ondoren), baita informazio-jardunaldien berri ere.



3.3 Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzak – Turismo Zuzendaritzak abian jarritakoak.

Eusko Jaurlaritzarenaren osagarri izango diren eta irailerako aurreikusita dauden laguntzen etorkizuneko deialdiaren berri eman da. Turismo Zuzendaritzak bi ildotan egingo du deialdia:

- ✓ Turismo-enpresentzat eta turismoaren arloko lanbide-elkarteentzat direnak.
- ✓ Turismo-ekitaldien sustatzaileei zuzendutakoak (berritasuna).

BFAk autonomoei eta turismo-sektoreko ETEei emandako laguntzari buruz sortu zen zalantzari dagokionez, urriaren 13ko 90/2020 Foru Dekretuak araututakoaz ari ginen; laguntza horrek 4.000 eurorainoko diru-laguntza ematen zuen autonomoko edo ETE bakoitzeko, aurkeztutako gastuen arabera.

4. Euskadi Turismo Bona:

Gogorarazten zaie atxikimenduen azken eguna martxoaren 26a dela, eta, labor-labur, Bonuaren funtzionamendua azalduko dizuegu, [BONO CONSUMO \(euskaditurismobono.eus\)](http://euskaditurismobono.eus) esteka erakutsiz, informazio xehatu guztia eskura izan dezazuen. Bonu horri esker, herritarrek gastronomiaz, ostalaritzaz, gauetz hoteletan, txangoez eta bisita turistikoez gozatu ahal izango dute, besteak beste; eta 2021. urte osoan martxan jarraituko duena.

Interesgarria izango litzateke sektorea parte hartzea; izan ere, haren funtzionamenduari esker, atxikitako bakoitzak zuzeneko hobariaz gain, publizitatea eta bonuen kopuru finko bat ere izan dezake eta.

5. Getxo Bono 2021: zenbatekoen aldaketak eta kronograma.

Iragarri da Udalbatzarrean Getxo-Bonura bideratutako ezohiko partidak onartuko direla, eta, beraz, abian jartzeko lan-teknikoari ekingo zaiola, Getxoko enpresa batekin batera. Enpresa horrek komunikazio-kanpaina garatuko du. Gainera, ahaleginak batu nahi dira tokiko kontsumoaren sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainarekin, eragin handiagoa izango duen komunikazio plan bat sortzeko. Aurreikusitako kronograma honako hau izango da:

- Kudeaketa-oinarriak onartzea: apirila
- Kanpainarako atxikimenduak: maiatzeko lehen hamabostaldia.
- Kanpainaren hasiera: maiatzeko bigarren hamabostaldia.

Aurten, erabaki politiko baten ondorioz, herritarrek jasoko duten hobariaaren zenbatekoa handiagoa izango da, iazkoa baino, eta zenbatekoetan izandako aldaketak erakutsiko zaizkie bertaratutakoei (xehetasun gehiago diapositiban).



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Sektore berriak (kirol-aisia, akademiak, gimnasioak, ostatuak, turismo-jarduerak, etab.) nabarmentzeko egingo den enfasi berezia aipatu da, herritarrek Getxo Bonua orain arte osatzen zuten sektoreekin soilik lotu ez dezaten, gehienak modakoak baitziren. Alde batetik, gogorarazten da bonuak online baino ez direla izango, eta web bidez baino ez direla erosiko (kutxabank terminalak kenduta); beraz, erosi ahal izateko baliabiderik edo ezagutzarik ez duten bezeroei lagundu beharko zaie erosten. Eta beste aldetik, oso garrantzitsua da negozio bakoitzean bonoa banaka sustatzea.

6. Turismoa sustatzeko kanpaina eta tokiko kontsumoari buruzko sentsibilizazio- eta sustapen-kanpaina.

6.1 Turismoa sustatzeko kanpaina:

Horri buruzko informazioa ematen da, "2021 planak", Hotelak eta Pentsioak eta Ostalaritza tokiko enpresen eskaintzan zentratuta. Hedapen berezia egingo da Aste Santuan eta Pazko Astean (03/29-04/11), eta Bilbo-Bizkaia eta Euskadiko hurbileko udalerrietako publikoa izango du helburu. Talde teknikoak ekintza guztien xehetasunak bidaltzeko konpromisoa hartzen du behin ospatutak.

Kanal anitzeko kanpaina izango da: irratia, prentsa, Online plataformak, sare sozialak, webguneak eta Newsletter-ak, bide publikoa, garraiobideak (berrikuntza gisa).

(Xehetasun gehiago erantsitako dokumentuan)

6.2 Tokiko kontsumoari buruzko sentsibilizazio- eta sustapen-kanpaina:

Kanpaina hori iazko aurrekontu parte-hartzaileetatik dator, 80.000 euroko inbertsioa izango du, eta urte osoan zehar iraungo du. Proiektuaren esleipendun den Getxoko enpresak talde teknikoari zirriborroaren lehen proposamena helarazi ziola iragarri da. Bertan, "Garrantzitsuena beti eskuz" leloarekin jokutzen da, tokian tokikoaren kalitatea eta hurbiltasuna azpimarratuz; era berean, diseinu hori adibide gisa erabiltzen dela argitu da. Apirilaren 15ean, zerbitzuaren zerbitzu teknikoek behin betiko proposamena jasoko dute xehetasun guztiekin; beharrezko ekarpen eta/edo doikuntzak egingo dituzte, prestatu eta abiarazteko.

Kanpainaren targeta azaldu da, eta eragin handiagoa izan du gazteen kolektiboan (18-35 urte), kate handietan, merkataritza-zentroetan edo online dendetan kontsumitzeko joera handiagoa duelako; eta, bestalde, kanpainaren fase eta helburu estrategikoak azaldu dira. (Ikus xehetasunak aurkezpenean).

Asmoa da kanpaina estatikoa ez izatea; hau da, kanpaina egiten den bitartean hobekuntzak edo akats-zuzenketak egin ahal izatea, eta biztanlerian eragindako



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

inpresioak aztertzea. Euskarri handi eta bisualak izango ditu, bai online, bai offline; eta sektore bakoitzaren beharren eta denboraldiaren arabera, bata edo bestea nabarmenduko da. Bestalde, atxikitako establezimenduen asebetetze-maila baloratuko da eta eragindako inpaktuak aztertuko dira.

Edonola ere, kanpaina hori maiatzean abiatuko da, Getxo Bonoko kanpainarekin batera, elkarrekin eragina gehitzeko.

7. Covid bidez kutsatzeko arriskua murrizteko Turismoaren Kode Etikoa eta BPP aurreratuak (SICTED).

7.1 Turismoko kode-etikoa:

Labur deskribatzen da Euskadiko Turismoaren Kode-Etikoa Turismorako Munduko Kode etikoaren egokitzapena bezala; gure kulturaren eta nortasunaren ezaugarrietatik abiatuta eginga dagoena, eta, bai Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan, bai Turismo Jasangarrirako Mundu Gutunean ezarritako Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen arabera antolatuta dagoena. Beraz, programaren helburua da gure garapen turistikoa modu arduratsuan ulertu eta kudeatzea.

Azaldu den bezala, 2020an, Getxo-Turismok turismo jasangarri eta arduratsu bat garatzeko konpromisoa indartu zuen, eta, horretarako, "Turismoaren Kode-Etikoa" ekimenarekin bat egin zuen. Bertan, tokiko 17 turismo-enpresak hartu zuten parte – Interpretazio-zentroetako enpresak, gidak eta bidaiia-agentziak barne –, eta Aste Santuko oporrak baino lehen, haien egiaztatzea eta bereizgarria jasoko dutela jakinarazi zitzaizkien.

Era berean, informatzeko eta gainerakoak hurrengo deialdian parte hartzera animatzeko, proiektuaren faseak zehazten dira (xehetasun gehiago aurkezpenean).

Informazio zehatza bidaliko zaie, Aste Santuaren ondoren eta Basquetourrek kanpaina berria argitaratzen duenetik aurrera.

7.2 BPP aurreratuak SICTED Covid bidez kutsatzeko arriskua murrizteko:

SICTED proiektuaren helburua azaldu da. Turismoko Estatu Idazkaritzak sustatu du, FEMPen laguntzarekin. Helburua da helmuga turistikoen kalitatea hobetzea, turistaren esperientzia eta gogobetetasuna hobetzeko, SARS-CoV-2 koronabirusak ofizioski kutsatzeko arriskua murrizteko Jardunbide Aurreratuen eskuliburuaren bidez, 36 ofiziotara egokituta.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Horretarako, autoebaluazio erraz bat egin beharko da, galdetegi baten bidez, geroago beharrezko hobekuntzak ezartzeko. Horretarako, apirilaren 15etik maiatzaren 15era arteko epea egongo da, gutxi gorabehera. Ondoren, ekainaren amaieran, ziurtagiri hori ematea aurreikusten da.

SICTED oinarrizko metodologia ezarrita duten guztiak (El Transbordador de Bizkaia, Go Basquing, Smartin Bilbao eta Willextour) animatzen dira bereziki, akreditazioa jasotzeko duten erraztasunagatik. Deialdia publiko egin bezain laster helaraziko zaio sektoreari.

Berturatutako mahaiak bereizgarri-programa hauek balioesten ditu, eta IFKonsultingek ematen duen aholkularitza espezializatuko zerbitzuaren profesionaltasuna nabarmentzen du, bere profesionaltasunagatik eta malgutasunagatik.

8. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

➤ Batuz-TicketBai sistema:

Talde teknikoak azpimarratu du oso garrantzitsua dela Bizkaiko Foru Ogasunak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera nahitaez ezarri beharreko software-sistema berri hori. Nola funtzionatzen duen zehatz-mehatz azaltzeko, jardunaldi informatibo batzuk emango dira online. Jardunaldi horiek Getxolanen webgunean daude argitaratuta, esteka honetan ([Getxo - Getxon bizi - Getxolan - Berriak - Xehetasuna](#)). Beharrezkoa balitz, jardunaldi gehiago sortzeko aukera aztertzen da, interesdunak sektoreka taldekatuz, bakoitzak izango lituzkeen zailtasun espezifikoak aztertzeko.

Gainera, azaltzen da Udalak oraindik ez duela aurreikusi xede horretarako behar den ekipamendua erosteko laguntza-lerrorik, Foru Aldundiak ildo horretan ematen dituen urratsak ikusi arte, baina aukera aztertuko da. Nolanahi ere, sektoreari gomendatzen zaio software-inbertsiorik ez egitea Foru Aldundiak homologatutako softwareen zerrendan dagoela egiaztatu arte.

➤ Proposamen berriak 2022ra begira.

Bertaratuak sektorea bere osotasunean hobetzeko edo balioesteko proposamenak edo ekintzak pentsatzen hastera animatzen dira, hurrengo bileretan leundu ahal izateko, irailean 2022ko aurrekontuetarako proposamenak entregatzen baitira.

➤ Basquetour eta BFAren jarduera-plana

Parte hartu duten enpresetako batzuek adierazi dute informazio gutxi dutela beste erakunde batzuetatik (BFA, EJ) egiten ari diren jardueri buruz.

Teknikoki aipatu da Basquetourrek berriki esleitu dituela hainbat produkturen laguntza teknikoak, eta azken asteetan berriz aktibatu direla



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Industria Turismoa, Euskal Kostaldea, Euskadi Gastronomika eta Familia Turismoa.

BFari dagokionez, ados gaude BBAG - Helmugako Mahaiaren zenbait bilera egin direla, eta turismo-industrien mahaiak ere deitu direla. Labur azaldu da 2030erako Turismo estrategia berriari ematen ari zaion bultzada; parte-hartzaile gehienek jaso dute inkesta. Ez daudenekin partekatzen da.

9. Hurrengo urratsak:

- Apirilak 29: Enpresen Aholkularitza Foroa.
- Maiatzak 17: Kontrasteen Mahai Politikoa.

INTERPRETAZIO ZENTROAK, GIDAK ETA BIDAI AGENTZIEN MAHAIAREN AKORDIOAK (2021-03-26)

AKORDIOAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aipatutako programei, laguntza-lerroei eta proiektuei buruzko informazio zehatza ematea – Deialdien arabera.	Zerbitzuaren teknikariak	Bileratik aurrera
2. Toki-mailan ematen diren turismo-zerbitzuen estatistiken xehetasunak ematea, sektoreak hala eskatuta.	Zerbitzuaren teknikariak	Bileratik aurrera
3. Batuz sistema: Hala badagokio, BFaren laguntza-lerro osagarriren bat proposatzea, beharrezko ekipamendu teknologikoa erosteko. (2022)	Zerbitzuaren teknikariak	Bileratik aurrera
4. Gobernu Taldeari jakinaraztea laguntza Getxoko perimetroa ixteko mugatzea, bidai-gida eta -agentzien esparruan, ez dela haren errealitatea kontuan hartzen.	Zerbitzuaren teknikariak	Bileratik aurrera
5. Getxolani jakinaraztea 1. puntuan deskribatutako jarduerak garatzeko lantaldean parte hartu nahi duten eta zer eginkizun betetzen duten (ezagutza ematea// zerbitzu-hornitzailea – Eremu zehatza).	Interpretazio Zentroak, gidak eta bidai-agentzia mahaiaren parte hartu duten enpresak	Apirilaren 21a baino lehen
6. Basquetourrek eta BFAk aurreikusitako jardueren laburpena bidaltzea	Zerbitzuaren teknikariak	Bileratik aurrera